



Memoria, haritzen itzalean

>>> 6-7



Altsasun birziklatzea handitzeko akordioa

>>> 3



Olatzagutiko alkateak kargua utziko du

>>> 8



Urdiainen Migel Angel Sagaseta apaiza omendu dute

>>> 5



Triatloi campusa martxan da

>>> 13

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN
NAVARRA**

CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com

www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**

Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



**Oinatz Breton
Ubeda**

ZORIONAK potxolo!
Igandean 3 urte beteko
dituzu!! Egun zoraga-
rria pasa dezazula! Izu-
garri maite zaitugu.
Muxu handi bat. Cris
osaba eta aiton-amona.



**Unai Razkin
Huarte**

ZORIONAK Unai! Iri-
tsi da espero zenuen
eguna! Oso ongi pasa
zure 8. urtebetetzean.
Segi orain arte bezela.
Muxu handi bat familia
guztiaren partetik!!



**Irune Karasatorre
Sureda**

Etxegorriko artistak 11
urte bete ditu!
ZORIONAK prexiosa,
urte askotako pozik bizi!
Maite zaitugu! Etxekoek.



Irati

ZORIONAK politte!
Eta muxu erraldoi bat
familiaren partetik.
Muuuuuuuu!

Garila

8-14

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Bizikleta irteerak

Altsasu-Done Bikendi Harana-Altsasu. 92 km. Garilaren 9an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 8an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 10an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Festak barra-barra hainbat herritan

» Arruazu



Bazkari ederra prestatzen.

» Lizarragabengoa



Haurrak aparraren festaz gozaten.

» Unanu



Etxerako buelta.

» Urdiain



Musika eta dantzarako ordua.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

**Ostiralero
SAIOA**
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: **Alfredo**

Gaurko gaiak:

- Migel Angel Sagasetari elkarrizketa
- Enneco parkearen lehen harria jartzea

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko data

Hilaren 17an izanen da, 12:30ean santutegian egingen den mezan

Aralarko Deun Mikel Goiaingearuaren Kofradiak 13. aldiz haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko ekitaldia antolatu du. Txikienean eta santutegiaren arteko lotura estutu nahi da ekitaldi horren bidez. Kofradiatik gaztigu dutenez, alde aurretik izena ematen duten haur guztiek 17ko aurkezpen ekitaldiaren ondoren haien izen-abizenak dituen pergamina jasoko dute. Hark Mikel goiaingearuaren lagun izendatzen ditu eta bizi guztirako bere babesa eskatzen du. Ekitaldira zuzenean joaten direnak ondorengo asteetan jaso behar dute agiria, doan. Kofradiatik haur eta gurasoak "hain gurea den Aralarko Santutegiko" aurkezpen ekitaldian parte hartzera gonbidatu dituzte.

Guraso askok santutegiarekiko lotura handia dute eta hura seme-alabei transmititzeko eta mantentzeko modua da haurren aurkezpena. Segida horri bultzada ematea da kofradiaren asmoa. Izan ere, lehen ez bezala, elizaren egungo araudiak euren parrokiatan bataiatu behar direla dio.

>> Altsasu

Hondakinen gaikako bilketa handitzeko akordioa sinatuta

Gaur egun Altsasuk duen gaikako bilketatik %26tik Sakana atez ateko bilketarekin lortzen den %78ra hurbiltzea xedea. Helburua: 2017ko abenduaren 31rako altsasuarrek hondakinen %65 gaika biltzea

Javier Ollo Martinez eta Aitor Karasatorre Muguruzaren sinadurak daramate Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak gaur sinatutako akordioak. Haren bidez Altsasun materia organikoa jasotzeko 5. edukiontzia, marroia, eta auzo-konposta guneak jarriko dira. Sinadura ekitaldiaren ondoren Karasatorrek nabarmendu du gaikako hondakin bilketako emaitza onenak ematen dituen sistema atez atekoa dela baina eskualdeko gainontzeko herrietan bezalaxe, Altsasuko Udalak hartu duen erabakia errespetatzen duela Mank-ek. Ollok, bestalde, erronkaren handi-nahia aitortzearekin batera, urte baten buruan desiotako datuak jasotzea espero dutela adierazi du.

Bi erakundeen arteko gaikako bilketaren inguruko akordioan jasotzen denez, "egun herriak duen gaikako bilketaren datua ikusita", 2017ko abenduaren 31an hondakinen %65 gaika biltzeko helburua finkatu da. Era berean, hiri hondakinen bilketaren eta trataeraren entitate arduradun gisa, Mank-ek informazio kanpaina hasiko du hurrengo sei hilabeteetan. Hiru



Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatearen ordezkariak akordioa sinatzen.

ardatz izanen ditukanpaina horrek bilketa selektiboa orokorrean, auzo eta auto konposta, eta edukiontzi marroian bilduko den hondakin organikoa. Azken helburua herri-tarrak borondatez bilketa selektiboan parte hartzeko izen ematea izanen du, Altsasuren bilketa tasa nabarmen hobetu dadin.

Egingen direnak

Mank-etik jakinarazi dutenez, altsasuar guztiek, lehenik, prozedura azaltzen duen gutun bana jasoko dute etxean. Hedabideen bidez ere guztiaren berri zabalduko da. Aldi berean, parte-hartze bilerak izanen dira. Egun eta ordu

ezberdinetan izanen diren lau bilera aurrekusi dituzte, altsasuar guztien ordutegietara egokitu ahal izateko. Bilera horietan sistema berriaren orokortasuna azalduko da, aldaketaren zergatien eta onuren berri emanez. Gainera, bilerek altsasuarren iritzia eta iradokizunak entzun eta jasotzeko balioko dute.

Horrekin guztiarekin batera, Baratzeko bide plazako lokomotoran informazio bulegoa zabalduko da. Administrazioak, bestalde, bilketa guneen espezio publikoa egingen du. Horretarako, panelak jarriko dira interesguneetan (Informazio bulegoa, udala, kultur etxea...).

Sistema ezarri aurretik bat egiten duten altsasuarrek materiala jasoko dute (pertza, gida, hiztegia eta giltza). Horren ondoren, sistema berria martxan jartzea besterik ez da falta. Altsasuarrek egiten duten hondakinen gaikako bereizketaren jarraipena egingen du Mank-ek jarritako %65eko helburua lortzen den jakiteko. Eta emaitzak azaltzen dituen gutuna ere helaraziko du.

2.260

Etxe horietako hondakinak kudeatzen dira.

Sanferminek Sakanan duten eragina ukazina da, sakandar bakoitza bere herritik abiatuta munduko festarik hoberenaz gozatzera Iruñera joango da, egun bat edo gehiagotan. Entzierroa, hamarretakoa, Iruñeko giroa, bermuta, zezenketak, su artifizialak edo gaueko parranda aukeran, ohiturak ohitura, goza dezagun festaz. Hona hainbat aukera, joan eta etorria egiteko, baita mokadu bat jateko ere. **Ongi pasa, pasatu gabe leloa praktikan jartzeko!**

Oskar Lasa

9 lagunendako

TAXI

ZERBITZUA

607 669 798

ETXARRI ARANATZ

Kendal

kafetegia-taberna

948 272 501

Ermitagaña kalea baxua Iruñea

OSTIRALA 8
HERRIKO
19.00 ELEKTROPATXARANGA
ELEKTROTARANGA
01.00 DJ TIRRI & TERY

LARUNBATA 9
HERRIKO
19.00 TTEKI
ELEKTROTARANGA
01.00 DJ JO TA TXO

IGANDEA 10
HERRIKO
19.00 SAKATU
ELEKTROTARANGA
00.00 IRREGULAR ROOTS
RAPEROS DE EMAUS & THE TITANIANS
02.00 DJ REIMY
ARRANO
00.30 LUZIANO

ASTELEHENA 11
HERRIKO
19.00 ZO-ZONGÓI! KOLPEZBLAI
PERKUSIO EMANALDIA
01.00 DJ BULL

ASTEARTEA 12
HERRIKO
19.00 EONIAN
ELEKTROTARANGA
00.00 TXIMELETA
01.00 DJ JO TA TXO
ARRANO
00.30 LUZIANO

ERRESERBAK SAN FERMINAK BAINO LEHEN
948 222 828
SANFERMINETAN
948 220 597

ASTEAZKENA 13
HERRIKO
19.00 ELEKTROTARANGA
KALEKO BANDA
01.00 TIRRI & TERY
ARRANO
00.30 LUZIANO

OSTEGUNA 14
ARRANO
00.00 F. BALENZIA
ANSA AHIZPAK



Oihane Andueza Imirizaldu

Transformagarri

astekoa

Pasa den astean bota nituen hauteskunde propagandarako bidaltzen dituzten gutunazal eta paper mordoak. Horrekin batera zakarrera joan ziren aldaketa, ilusioa, justizia etiko, moral eta ekonomikoa egiteko desioa eta beste hainbat nahi.

Nirekin gelditu ziren, aldiz, tristura, amorrua, amorrua eta ezin gaitetik kendu, ezin ulertu, pareta baten kontra jotzea bezala.

Paperak birziklatzera eta paretaren kontra joka ni.

Zenbat energia hauteskunderen

tan jarrita: gutunazalak, mahai elektoralean dauden pertsona guztiei ematen diren dirua eta denbora, udaletako idazkariei ordaintzen zaiena, epaileek kobratzen dutena, politikariek eta abar amaiezin bat, nik eza gutzen ez dudana. Paperak, dirua,

denbora, energia, emozio paleta zabal bat, hori guztia ezertarako ez (nire iritziz, noski).

Eta papera birziklatzera. Klik egin zidan papera zakarrera bota nuenean eta esperantza izpi bat ireki. Paper horiek beste zeozertan bilakatuko ziren esperantza. Jor-

ge Drexlerrek bere kantan "todo se transforma" dio, gomendagarri.

Nik hemen esperantzara nahia-go dut ihes egin paretari jotzen jarraitu baino, eta zera diot: Hauteskunderen argira atera ez den kaka montona, biharko loreen ongarririk izan dadila. Hala bedi.

barrutik kanpora

Kontsumitzaileen ohiko galderen erantzuna

Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartearen argitaratutako triptiko batean hiritarrek maiz galdetutako hamar galdereri erantzuna ematen diegu. Hauek dira maiztasun handienez egindako hiru galderak eta erantzunak:

1 - Nola jakin dezaket nire hipotekan zoru klausularik badagoen? Erreklamatu dezaket?

Egin behar duzun lehenengo gauza hipoteka maileguaren agiria berrikustea da, bertan interes tasaren aldaketen mugaren aipamenik dagoen ikusteko edo "gutxieneko interes arruntan"

bat ezartzen den. Bigarren, hilabeteko kuotetan zorua ezartzen den egiaztatu. Hala bada eta ez bazitzaizkizun modu garbi batean zorua barne egongo zela eta honen ondorioak jakinarazi, honen baliogabetzea eskatu ahal izango duzu, baita klausula honi jarraiki gehienez kobratutako zenbatekoen itzultzea.

2 - Nire kotxea gas isurketa neurrien manipulazioaren menpe egon daiteke. Horrela bada, zer egin dezaket?

Lehenengo egin behar duzuna, Volkswagen-en webgunean zure

kotxea eragindako bat den ala ez begiratzea da, horretarako, bastidore zenbakia eman. Hala bada, konpainiak berak emango dizu data bat kotxea konpontzera eramateko. Kasu honetan, burutuko diren lan guztiak adierazten dituen enpresak zigitatutako dokumentu bat eman diezazuten eskatu. Kotxeak edozein prestazio edo potentzia murrizketa edo kontsumoan aldaketarik jasaten badu, irregulartasunik antzematen baduzu edo, besterik gabe, aldaketarik egon ez dela egiaztatu nahi baduzu, beri-

bila aditu batek aztertu beharko du eta, horren arabera, dagokion konpentsazio ekonomikoa erreklamatu ahalko duzu.

3 - Zer komisio kobra diezadake banku batek?

Kreditu erakundeek askatasuna dute haien banku-komisioak eta ondoriozko gastuak ezartzeko, baldin eta emandako zerbitzu edo egondako gastuei badagozkien. Baldintza horretaz gain, ez dago zenbateko mugarik, bereziki eta espresuki lege-xedapen batek hala jasotzen duenean izan ezik.

Nolanahi ere, erakundeek mai-

zen ematen dituzten zerbitzuen gatik jasotako komisioak bezeren eskura jarri behar dituzte, haien sukurtsaletan eta webgunean. Kutzazain automatikoetan edo interneten burututako eragiketetan, banku-erakundeak kobratuko duena jakinarazi behar du, zerbitzua eman aurretik. Horrela, beste erakunde baten kutxazainean dirua ateratzen baduzu, dirua jaso baino lehen, aplikatuko duten komisioa jakinarazi behar dizute eta eragiketa baieztatu edo ezetzatu ahalko duzu.

Iratxe Kontsumitzaile Elkarte

hara zer dien

Komunikazio positiboa

Gizakiok jaiotzen garenetik izaki sozialak gara, hau da, beste gizakiekin harremanetan bizitzeko sortuak gaude. Gizartean bizitzeko elkarren arteko komunikazioa ezinbestekoa da. Arauak onartu edo uko egin ahal ditugu, iritzi desberdinak izan ditzakegu, baina, berez, gai gara benetan pentsatzen eta sentitzen duguna besteei inolako arazorik gabe adierazteko?

Askotan besteekin harremanetan jartzen garenean asertiboak izatea kostatzen zaigu. Baina zer esan nahi du asertibitateak? **Asertiboa izatea da gainontzekoei jakinaraztea zer sentitzen dugun eta zer pentsatzen dugun, gainontzekoak mindu gabe, baina aldi berean, esateko duzuna adiera-**

ziz. Sozialki ez dago oso onartuak benetan behar duguna eta pentsatzen duguna esatea. Beldur gara besteak gutaz zer pentsatuko duten, ahul itxura ematea... Hori dela eta, askotan egin nahi ez duguna egiten dugu eta gure buruaren aurka egiten dugu. Honek guregan eraginak izan ditzake, era batera edo bestera kanpora aterako baita, haserre moduan, neke moduan...

Portaera asertiboa, ez asertiboa bezalaxe, ikasitako portaera bat da. Horren arabera asertiboa izaten ikasi daiteke. Beraz, pertsona guztien esku dago asertiboa goa izatea. Ikasketa prozesu horretan, garrantzitsua, kontuan izan beharko ditugu portaeraren oinarri diren hiru mailak: kog-

nitiboa, emozionala eta motorra. Portaera asertiboa ezematearen arrazoiak hiru maila horietako zeinetan zentratzen den jakinda, teknika mota desberdinak erabili daitezke hauek lantzeko. Batzuei pentsatzen dutena esatea kostatuko zaie, adibidez, beste batzuei, berriz, sentitzen dutena. Badaude ere, pentsatzen edo sentitzen dutena akziora eramaterakoan zailtasunak dituztenak. Hauetako zeinetan ikusten duzue zure burua islatua?

Asertiboak garenenean ez gara ez pasiboak ez agresiboak izaten. Pasibo egoeran gaude beste pertsonen presioa egiten digutenean edo haserretzen direnean eta guk amore emateko jarrera hartzen dugunean. Egoera agresibo-

ZUZENKETA



Joan den astean REE argindar linean lanak egiten ari zela jakinarazi genuen. Linea horrek Orkoien eta Itsaso lotzen ditu, ez Deikaztelu eta Itsaso, azaldu genuen moduan.

etan gaude, berriz, nahi duguna lortzeko borrokatzeko jarreran jartzen garenean. Ez dugu interesik bestearen eskaerak bidezkoak diren ala ez egiaztatzeko ere. Irainak, mehatxuak, oihuak... eman daitezke egoera hauetan.

Nola egin dezakegu jarrera pasibo eta agresiboak alde batera uzteko eta asertibitate martxan jartzeko? Hurrengo lerroetan kontutan hartu ditzakezuen pauso batzuk azaltzen dizkizuegu.

1: Egoera deskribatu. Bestearen jokaera hitzez azaldu. Objektibotasuna. ("Gaur 15 minutu berandu heldu zara eskolara".)

2: Azaldu. Jokaeraren ondorio negatiboak. Emozioen burujabetasuna. ("Eskolara berandu zatorren bakoitzean kezkatzen naiz")

3: Eskatu. Jokaera berria, alternatiboa. Eskaera errealistak eta zehatzak. Komunikazioa ("Mesedez, garaiz etorri").

4: Ondorioak. Jokaera berriaren ondorio positiboak. Asertibitate. ("Horrela ni lasaituko naiz eta ez dizut behin eta berriz orduarena gogoratuko. Gainera, ez zara atsedendaldi orduan ikasgelan geratu beharko eta lagunekin jolastuko duzu.")

Badakigu betidanik erabili ditugun jarrerak aldatzea kostatzen zaigula baina kongruentek izatera animatzen zaituztegu ekartzen dituen ondorio positiboak bizitzeko.

Irurtzungo zonaldeko Gizarte Zerbitzua

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores Lazkoz
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburuordetza

>> **Urdiain**

Parrokiak apaiza omendu du

50 urte bete dira Migel Angel Sagaseta Ariztegi apezte zela. Gaur egun Sagasetak egunero meza ematen du Urdiainen. Dorraon eta Lizarragabengoan igandeetan, edo zerbait berezia denean.

Joan den igandean, mezan esan zuen Migel Angel Sagaseta Ariztegi 50 egin zituela apaiz gisa. *Eske-rrrik asko* kantatu zuten, “eta kitto. Nere ustez horretan bukatua zen”. Urdiaingo parrokiako kideek omenaldia prestatzeko “azpilana” egin dute astean zehar. Eta festetako asteleheneko, jubilatuen eguneko elizkizuna baliatuta omenaldia egin zioten. Meza ematen lagun izan zituen Aurelio anaia zaharra eta Peio Etxabarri apaiz uhartearra.

Urdiaindarren artean, berriz, Floridan moja den eta astelehenean bertan bueltan joan zen Maria Jesus arreba zaharrena zegoen.

Meza akaberan elizako atek zabaldu eta hiru dantzari sartu ziren: Iñigo Goikoetxea, Amaia Zubiria eta Javier Zelaia. Txistuaren doinura Sagasetari aurrekoa dantzatu zioten eta parrokiaren izenean Urdiainen ospakizunetan ardoa banatzeko erabiltzen den zilarrezko tazaren errepika bat oparitu zioten, ondorengo auzatean mustuzue-na. “Gaur arteez nekien herri bakoitzean tazek marrazki ezberdinak dituztela. Gaur ikasi dut.” Urdiaindarren berotasuna jaso zuen Saga-



Urdiaindarren berotasuna jaso zuen Migel Angel Sagaseta Ariztegi.

setak. “Urdiain oso eskertua da. Egiten duzunarekin konforme eta beti animoa besterik ez dut hartu nik. Behar bada, horrela nik bakean gehiago uzten ditudalako; ez dakit (barrez)”.

Duela bi urte eta erdi edo pata-laldia izan zuen, “baja ikaragarria. Manerahartan ez zinnu en segitu. Zortzi espezialista pasa ondoren batek esan zidan nondik zebilen bazekie-

la ustez. Ezzidan gehiago esan. Tratamendua jarri eta analisisiek hobera egin zuten. Orduetik mejoa dextente egin dut. Burua argitu zait. Ibiltzeko... lasterka ibiltzeko ez nago, baina beno. Erdi lanak eginen ditut, baina erdi-lanak egiteko bidea badaukat momentuan”. Eta gaineratu du: “Arnegiko ijito zahar hark esaten zuen moduan: Jainkoak uzten nauen bitartean segituko dut”.

Ikusi bideoa



Biografia laburra

Aita donamariarra eta ama oiztarra, Iturenen jaio zen duela 75 urte. Apezteko erabakia “oso erraza izan zen. Sei urte zaharra goa den anaia, Aurelio, nik beti ikusi dut etxean apezgai edo apez. Baina baziren beste apezgai asko Iturenen. Garai batean han egoten zen beti Don Jose Ignazio Telletxea Idigoras idazlea, Andres Petirena... Hiru urte segidan hiru meza berri ikusi nituen nik herrian.” Anaia bidean zuen eta herrian beste batzuk ere, “Iñigotarrak eta.” Bera txikia zela bere hiru arreba zaharrenak moja egin ziren. “Familiatik... Bi urtez zortzi neska moja joan ziren garai hartan.”

Haiena ez zen baserri batean bizi zen familia. Anaia bat Ameriketara joan zen. Gainontzekoak Iruñera joan ziren bizitzera. “Aitak, jada, ezin zuen; zahartua zen kasik. Horregatik, utzi genuen. Aitari atake batek eman zion”.

Apezgoa

Iturenen adineko apaiza zuten, “burua kasik galdurik. Zorte handia izan genuen, hari laguntzea Don Tomas Lizarraga bidali zuten, gero Etxarri Aranatzaren eta Urdiainen pixka batez egon zena.” Mutil kokorrazela ezagutu zuen Lizarraga eta meza-mutilegon zen harekin, harreman “estua” izan zuen harekin. Iturenendako “aldaketa handia” izan zen, “haize berria, etorri berria; apez gaztea, Salamancatik orduantxe doktoratua atera berria etorri zena. Gauza guztiez ententitzen zuena. 100 kiloko gizona”.

Apezgai, “estudiante” zela seminarioan bizi izan zuen Sagasetak Vatikanoko bigarren kontzilioaren garaia. Kontzilioko garai hartan seminarioan “berriketa ikaragarria” izan zela azaldu digu. Gero batzuk uzten zuten, “baina seminarioa bete-betea egin zen. Pabiloi berria egin zen. Hirurak segidan bete ziren. 1.009 ginela uste dutsartu ginenean”. Ikasketa aldia egin eta meza berria Iruñeko San Juan Bautista edo Jesus y Maria elizan eman zuen, Konpainia kale-

an. “Gaur ez da existitzen. Denbora batez Jesuitena izana, gero parroki hori katedralen egoten zena zen, baina eliza berea urte askotan egon zen. Orain, uste dut han Donejakue bidea egiten dutenendako aterpe bilakatu dutela.”

Bere seminarioko azken bi urtetan Iruñean bizi zen familia, “parroki horren inguruan bizi izan ginen”. Meza eman eta segituan handik Luzaidera bidali zuten. “Luzaiden lehen urteak dira eta gehiago sentitzen dira.” Hango dantzariekin eta harreman handitan sartu zen, “hango musikak eta biltzen. Horrelakolanetan.” Luzaiden zazpi urte eman zituen. Leitzan zortzi. Etxarri Aranatzaren 15 eta Urdiainen 20 urte egin ditu apaiz. Guztira, 50 urte apaizgoan.

Eta beti dagokion herriari dagokion ikerketaren bat egin izan du: Luzaiden “dantzariekin eta, falta handia zegoelako.” Etxarri Aranatzko Konzezio ermitari buruzko liburua argitaratu zuen eta Urdiaingo elizari buruzkoa gero. “Ikerketa berezi handi-handirik egin gabe. Informazioa bilatu dut,



Sagaseta anaia, Migel Angel eta Aurelio, oparitutako zilarrezko tazari begira.

bai. Baina azken horiek erretiroko lanak ziren. Beste lanik ez genuen eta eserita egin behar diren lanak izaten dira eta! Eserita egoteko oraindik trebe naiz”.

Egungo eliza

Seminarioa “oso listo” hustu zela azaldu digu, “handik sei urtera ez dakit hamar lagun gelditzen ote ziren. Ikaragarriko aldaketa izan zen Iruñeko seminarioan. Gero gutxika-gutxika apezte dira. Beste giro batean, kontzilio ondorengoan”. Hasieran apez asko ziren eta herri guztietan egoteko adina bazegoen. Baina haiek joan aha-

la apaiz gutxi gelditu dira.

“Gaur egun ezinezkoa da herri bakoitzera apaiz bat ekartzea. Herri asko edo bailara asko. Aldaketa etorriko da seguraski: laikoek gehiago parte hartuko dute. Baina, jakina, beti apaiza beharko dute, gehiago edo gutxiago.” Herrietako parrokiak, kristau komunitateek segituko dutela ziur da, “gero apaizaren presentzia zenbatekoa izanen den? Ameriketan esaten zutena, 50 km inguruan apaiz bakarra.” Momentuan horretara ohitu beharko dugula esan digu Sagasetak, “gero ez dakit zer aldaketa edo zer etorriko den.”

Mendeetan isilarazitako gure herriaren memoria berreskuratu eta eraiki dezagun. Egin zaitetz Enneco lagun.

www.enneco.org

Ennecok MECNA zigilua lortu du, beraz, egindako aportazioaren %80a itzuliko zaizu.

Enneco

haritzaren memoria la memoire du chêne
la memoria del roble the memory of the oak

ON-LINE DENDA ZABALIK

KOPIAGINTZA ZERBITZUAK

TXARTEL

www.txartel.net
Bakea kalea
Altsasu
948 564 002

15,00 €

Ver Catálogo 2016

Enneco, haritzaren memoria parkeko lehen harria jartzea

>> Etxarri Aranatz

Ennecoren lehen harria

Nafarroa Bizirik fundazioak sustatzen duen Enneco, haritzaren memoria egitasmoa gauzatzeko fasean sartu da. Etxarri Aranazko Udalak fundazioari parkea egiteko lurraz 35 urterako ematea erabaki zuten azken bilkuran, garagarriaren 21ean. Asteartean parkeko aurreneko harria jarri zuten

Basopokale eta Danbolintxulo artean memoria parkea eraikitzen hasiko da Nafarroa Bizirik fundazioa aurki. Nafarrak protagonistak izanen dituen parkea izanen da Enneco, haritzaren memoria. Erreinua IX. mendean sortu zenetik 1620an izateari utzi arteko bilakaera jasoko du parkeak. Horretarako, historia gune monografikoak izanen dira: euskara, emakumea, mitologia eta ohiturak...

Baimenak lortu ondoren eraikitza faseari ekinen diote orain eta hasiera irudikatzen lehen parkeak hartuko duen Erdi Aroko dorrearen lehen harria jarri zuten asteartean. Eneka Maiz Ulaiar Etxarri Aranazko alkatea zinta moztuzuen eta haren zati bat Pedro Esarte Muniain historialariari eskaini zion. Parkea babesten duten hainbat eragile ekitaldiko lekuko izan ziren. Txaloeekin despeditu zen ekitaldia eta, ondoren, proiektua bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatua izan zen.

Sinbolismoz betea

Lajekin egindako zulo batean zegoen kutxan Nafarroa Bizirik fundazioarendako "oso garrantzitsuak diren elementuak" sartu

zitu zuten. Sei elementu izan ziren fundazioko presidente Patxi Abasolok banaka-banaka kutxan sartu zituenak. Lehenik eta behin Nafarroako bandera, "nafarrak garelako. Berdin da Nafarroa Garaia, mendebaldeko Nafarroa... Proiektu honen alde gaudenak batzen gaituen elementua da Nafarroako bandera. Kolore anitzeko jendea. Bakoitzak uste dugu bide ezberdin bat hartu behar dugula, baina badakigu guztiok batera nora joan, Nafarroa Bizirik batera goaz".

Artzeren Arrano Beltza poesia zuten pergamina ere sartu zuten kutxan. "Oso ongi laburbiltzen du zer izan zen Nafarroa. Zer nola bilakaera izan dugun. Hainbat konturekin erne egoteko esaten digu. Hori jakiteko poesia irakurri." Nafarroa Bizirik-en kamixeta kutxan sartuz "herri mugimendua" direla adierazi nahi izan zuten. "Enpresa proiektua eta herri mugimendua sustatuko dugu. Hori miraria izanen da eta horri esker Enneco errealitate izatea lortuko dugu. Pixkanaka hau guztia errealitate bihurtzea lortuko dugu." Parkea sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioa izen bereko herri ekimenetik sortu zela gogorarazi zuten Abasolok, "eta hori ez dugu inoiz ahaztuko".

Nafarroa Bizirik-ek argitaratutako kantuen CDa gazteak gogoran zituztela sartu zuten kutxan:



Eneka Maiz Ulaiar zinta moztzen, Pello Esarte Muniain idazlea (txapelduna) lekuko duela.

"hemen kanta pilo bat ditugu. Nahi gendake gure hurrengo belaunaldi horiek ez ahaztea alaitasuna garrantzitsua dela". Abasolok segituan bi liburu sartu zituen. Bata, Pello Esarte Muniainen *Navarra, 1512-1530. Conquista, ocupación y sometimiento militar; civil y eclesiástico* liburuaren eta, bestea, *Konkistak 500 urte* Nafarroa Bizirik herri mugimendua 2012an argitaratutako dibulgazio lana. "Esarte hasiera-hasieratik gurekin egon da, beste historialari asko bezala. Berak auzolan ikuspuntu batetik baloratu beharreko kontu bat egin du: jabetza pribatuari muzin egin eta jendearen, herriaren esku utzi bere ondare intelektual". Abasolok

nabarmendu zuenez, "uztarketa polit hori Ennecon eginen dugu. Gauzak zientzia aldetik landuko dira. Baina helburua ez da jakite hutsa izan: buruak astindu, bihotza astindu".

Kutxan Abasolok sartu zuten azkena Etxarri Aranatz, *beste 700 urte baietz! Herriantzerkia* liburuaren izan zen. "Noski, Etxarri Aranatz. 2012an Joxi Bakaikuak esan zigun Enneco moduko egitasmo bat egiteko toki zoragarri bat zegoela. Orduko eta oraingo udal taldeak aktibo handienak izan dira. Ondoren izan ditugu etengabe. Eta haiei esker Enneco errealitate bat izanen da". Etxarriarrek 2012ko herri dinamika "aktibo" bat izan zirela gogorarazi zuten Abasolok. Kutxa

itxi ondoren fundazioko auzolanen arduradun den Carlos Lopezek eta Txumak beste laja batekin estalizuten kutxa. Palaeskutan hartuta hura lurrez estali zuten Maizek, Abasolok, Esartek, Orreaga fundazioko Koldo Amatriak eta nahi izan zuten guztiak.

Ikusi bideoa**Finantziazioa**

Abasolok esan zuenez, "oraintxe milioi bat euro izanez gero, dena eraikiko gendake. Baina hori ez da asmoa. Pixkanaka egin nahi dugu parkea, jendearekin ekarpenekin". Hilero 7 eta 14 euro arteko kuotak ordaintzeko proposamena egin dute ekimenaren sustatzaileek. Fundazioko buruak gogorarazi zuten Ennecok Mecna zigilua duela. Hau da, Nafarroako Gobernuaren Mezenazgo Legearen aitortza du. Beraz, parkearen alde diru ekarpena egiten duen guztiak errenta aitortpenaren desgrabazioa izanen du. Argibide guztiak www.enneco.org web orrian daude.

Gaur egun Ennecoren 135 lagun daude Euskal Herri guztian, nafarrak gehienak. Bestalde, beste 20 sustatzailek 1.200 euroko ekarpena egiten dituzte. Horien babesari esker orain arteko bidea egin du egitasmoak. Hurrengo ikasturtean 1.000 Enneco lagun lortzeko erronka jarri diote bere buruari.



Abasolo Kastro baskoiari buruzko azalpenak ematen.

"Jendearen ekarpen txikiekin egin nahi dugu".

Auzolanei esker ere aurrera egin du parkeak. Hasieratik aritu dira sakandarrak Enneco itxura

hartzeko lanean. Eta haiekin batera Bergara, Gasteiz, Durango, Arrotxapea edo Bilboko taldeak ere bai. Lan boluntario horren balioa aitortu zuten Abasolok ere.

Eneka Maiz Ulaiar

Etxarri Aranazko alkatea

Udalak zergatik egin zuen bat?

Hasieratik ikusi genuen proiektu interesgarria izanen zela. Alde batetik, gure historiari, gure kulturari eta gure identitateari balioa ematen diolako. Bestetik, gauza bera egiten delako bertako ingurumenarekin. Auzolanean eginen den proiektu bat izanen dela ere azpimarratu behar da, herritarrek herritarrendako egina.

Ennecok Etxarri eta Sakanari zer ekarriko dio?

Lehenik, parte-hartze prozesu bateko kide izatearen balorea. Eta, gure natura, kultura eta turismo baliabideak ezagutzera emateko bidea emanen du. Orain arte horren beste nabarmendu ez den ikuspegi batzuetatik Etxarri eta Sakanamapan jarriko ditu, dudarik gabe.

35 urterako utzi diezue lurraren erabilera, zer espero duzue epe horretan gertatzea?

Gauza onak espero ditugu. Espero dugu proiektuak aurreikusitako epean bere bidea egitea. Elkarlan opa-roa egotea eta Enneco Euskal Herri osorako erreferentzia izatea.

**60 lekuko**

Estebe Petrizan (Nafarroako Gobernu hezkuntza zuzendari nagusia); Irañetako, Uharte Arakilgo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko alkateak; Iruñerriko udal ordezkariak; EH Bildu, Sortu, Aralar, EAJ eta Geroa Bai alderdietako ordezkariak; Josu Reparaz (Nafarroako Ikastolen Elkarte); Sergio Iribarren (Sortzen); Gaizka Uharte (LAB); Alfonso Nuin eta Izaskun Bengoetxea (Bidelagun elkarte); Susana Mendinueta (Cederna-Garalur); Paki Urbirtarte (turismo teknikaria); Pello Esarte Muniain (historialaria); Jose Ramon Anda (eskultorea); Koldo Amatria (Orreaga fundazioa), Udalbiltza, Sakantzen Sarea eta beste hainbat.

Enneco, haritzaren memoria parkeko lehen harria jartzea

» Etxarri Aranatz

Eraikuntzaz


Irailean hasiko dira parkeko eraikuntza lanak eta 2022rako despetituak nahi lituzkete, Amaiurko gatazkaren bosgarren mendeurrenerako. "Aurreratu edo atzeratuz gero, ongi. Proiektu arkitektoniko eta negozio plan serio bana dago. Eginen dugula demostratuta dago". Harrera eraikina izanen da jasotzen hasiko diren lehen eraikuntza. "Eraikin nagusiak hartuko duen historia eta kultura gaiak hasieran harrera eraikinean izanen dira. Harrera eraikinean parkea zer izanen den ere azalduko da". Erdoziak azalduzenez, "harrera eraikina teiltatu beraren azpian dauden bi eraikinez osatuta dago, parkera sarrera harresi baten atea dela irudikatuz".

Horrekin batera, Erdi Aroko garabia bat eraikiko dute. Egurrezkoa izanen da eta xaguen karioletan izaten den antzeko boro-

bil bat izanen du (3 metroko zirkunferentzia). Han jendea sartuko da eta bere mugimenduaren bidez 250 kilo arteko harriak jasoko dituzte. Erdi Aroko eraikuntza teknikak erabiliko dituzte garaiko dorrea jasotzeko. Ez porlanik ez ezer. Lan segurtasuna nola zaindu aztertzen ari dira.

Abasolok azaldu duenez, "guztia bio-ekologiaren ikuspuntutik eginen da. Balio handiko kontua da gaur egun energia kontuak eta horiek guztiak. Gainera, bi proiektu horiek, teknikoak eta ekologikoak, bat egin dute eta gauzak non egon behar zuten esan dute. Hori zoragarria izan da".

Iraila bitartean guztia behar bezala nola egin antolatzen ariko dira fundazioan. Hala ere, zenbait gauza oso argi dituzte dagoeneko. Iñaki Erdozia arkitekto etxarriarrak aurreratu zuenez,



Parkeko maketa. Goian, eskubian, sarrera eta eraikin nagusia.

"ez da zuhaitz handirik moztuko". Sietsa ere berreskuratuko

dute. Gaikako pabilioiak izanen dira eta haiekin batera parkeari

bizia emanen dioten jarduerak izanen dira. Erdoziak esan duenez, "pabilioiak "nahiko txikiak dira. Egurrezkoak izanen dira inguruarekin bat egiteko. Guztiak nahiko antzekoak izanen dira, gero auzolanean nahiko erraz egin ahal izateko."

Haiek eraikitzeke ez da zulketarik eginen, ez da sustrairik ukituko. "Tirafondo handi batzuen moduko zimentazioa dute. Hori lurrean sartzen da eta gero egurrezko etxola horren gainean jartzen da. Ez da lurrik ukituko. Etorkizunean kendu nahi bada, desmuntatu eta hau berdin-berdin geldituko litzateke". Etxola bakoitza bi zatitan banatuta egonen da. Bidea erditik pasako da. Zati bat biltegi gisa erabiliko da. Bestalde, etxolak dagokion gaiari buruzko edukiak hartuko ditu. Pabilioi bakoitzak kanpoan lotutako jarduerak izatea da asmoa. Parkean dagoen landare eta zuhaitzen berri ematen duten oharrak ere jarriko dituzte.

» Edukiak

Memoria parkea izateaz aparte, Enneco ikastetxea izatea nahi dute fundazioan: "bertaratzen den jendea, espreski ikasleak, modu pedagogiko batean, nola lan egiten zuten eta dorrea nola eraikitzen zen ikusiko dute." Harrera eraikina, eraikin nagusia, Erdi Aroko dorrea, paleolitoari, euskarari, emakumeari eta mitologia eta ohiturei eskainitako pabilioi bana eta erakusketaretoa. Horiek dira jasoko diren eraikinak. Azkeneko erabilera antzekoa izanen da. Han aldi baterako erakusketak hartzeaz aparte, eztabaida gunea eta historialari eta abarren topagunea bilakatzeko nahi dute. Erdi Aroko dorreari dagokionez, Abasolok gogorarazi zuen konkistaren ondoren Cisneros kardinalak dorre guztiak (gazteluak) botatzeko agindu zuela, nafarrak burumakur nahi zituelako. "Estatalitatearen ikur ziren. 500 urte pasa dira eta egin beharrekoak egin behar

dugu, bat jaso. Sinbolikoki Cisneros horien guztien kontra karga ideologiko, politiko eta historiko izugarria izanen du".

"Berritasuna nahi dugu, beste toki batean dagoena ez dugu hemen jarriko. Beste ikuspuntu bat eskaini nahi da". Abasolok adibidea eman du: "esaterako, euskararen gaian ez da historiara joko. Kontzientziak ukitzeko moduan eginen da, euskarari balioa eman, auzolanean egindako esperientziak azaldu (helduen eskalduntze alfabetatzea, ikastolak...), herri honek euskararen alde egindakoari balioa eman". Eta gaineratu zuen: "Nestor Basterretxeak emandako eskulturak laburbiltzen duena, estatuaren zurruntasuna eta Nafarroa bizia islatzen duen xafra bihurriak. Halako elementuetako bat euskara izan da: eraztun, zaplazteko, irain eta gizarte desprestigioari aurre eginda hemen dago".

Errekaren ondoan dagoen eta neguan euriarekin lokatz asko sortzen den toki batean merenderoa egi-



Iñaki Erdozia arkitektoa bisitariei parkeari buruzko azalpenak ematen.

nen dute, udarako. Jarduera osagarriak han eginen dira: txondor batzuk eginen dira ikatza nola egiten zen jakiteko, tirolina batzuk jarriko dira, haurrendakojokoak...

Handik gertu kastro baskoia izanen da. Metro bat edo metro eta erdi jasoko dituzte harresiak. "Umiltasunez eginen dugu, inork

ez baitaki nolakoak ziren halako kastroak. Defentsa asmoz eraikiak ziren. Lehen eraikin komuna zuten, han jateko eta beste. Familien etxola txikiak eta biltegia, jakiak gordetzen zen tokia. Animaliak ere izanen dira, beste dimentsio bat emateko." Ardiak parkeko belarzainak izanen dira.

Kastroa egiteko lanak hasiak dira, bainagelditu egin zuten, "ongi egiteko, nola egin adostu ondoren abiatzeko". Hura egiteko Ikastolen federazioarekin eta Sortzenekin kanpaina martxan dute, haurrak parkera joan eta bakoitzak bere harria jarri dezan. "Horrela dena eta denendako izan dadin".

Datuak

- 60.000 m2 azalera
- Km bateko ibilbidea
- 10 eraikuntza
- 60 tona harri dagoeneko kastroa egiteko erabiliak
- Miloi bat euroko aurrekontua

Batzarra

Nafarroa Bizirik fundazioak batzar orokorra egin zuen Etxarri Aranatz larunbatean. Enneco proiektua babesten duten 30 bat pertsona elkartzu ziren. Heldu den ikasturterako fundazioaren hainbat arlotan izanen den lan plangintza proposamena aurkeztu zen: fundazioaren berritzea, proiektu arkitektonikoaren planteamendua, museo proiektuaren proposamena, auzolan plangintza, ikasturte berrirako egitasmoa eta

negozio plana.

Abasolok jakinarazi zuenez, patronatua eta zuzendaritza kolegiatua erabat berrituko dituzte; "zerotik abiatuko gara fase berri honetan". Aurreratu zuenez, parkearen proiektu arkitektonikoaren ardura duen lan taldean Karmele Marañon Arbizuko alkatea, eraikuntza arloan eskarmentu handia duena, eta Iñaki Erdozia, arkitekto etxarriarra daude. "Enpresa ikuspuntua landuko duen lan-taldea izanen da. Beste bat aholkularitza juridikoan ariko da". Unai Zeberio



Heldu den ikasturteko plangintza onartu zen batzarrean.

herri dinamikaz arduratuko da. Patxi Abasolo historialaria "gure masagrisa" dinamizatu eta ados jar-

tzeaz arduratuko da, guztien arteko "feeling-a bilatu eta edukia adostez".

» Olazti

Alkateak kargua utziko du

Gurutze Rodriguez Armendarizek Olatzagutiko EH Bilduko astearteko batzarrean alkate gisa dimitutuko duela jakinarazi zuen. Koalizioetik jakinarazi dutenez, “karguari uko egiteko arrazoi nagusia bere egoera pertsonala da. Rodriguezek hainbat hilabete darama medikuaren bajarekin eta horrek alkate lanak egitea eragozten dio.” Olatzagutiko EH Bilduko batzarrak Mikel Azkargorta proposatu zuen Rodriguez alkate postuan ordezkatzeko.

EH Bilduko udal taldea berrantolatu beharrean dago. Izan ere, Rodriguezen aurretik Patricia Fernandez Ganuza zinegotziak dimisioa eman zuen. Koalizioak gehien goa du udalean, 6 ordezkariekin, UPNk bi ditu (Oscar Alvarez Peonek kargua utzi zuen) eta PSNk bakarra.

Batzar berean herrian Berdintasun Plana ezartzeko emandako urratsak azaldu zituzten. “Egondako zailtasunak azaldu eta berdintasun teknikari baten kontratazio iragankorrak sortutako akatsak aitortu ziren”. Aldi berean, Sakanako hainbat udal elkarrekin berdintasun teknikari bat kontratatzeke aukera aztertzen hainbat hilabete daramatela jakinarazi zen.

PSNren salaketa

Alderdi sozialistak Olatzagutian duen zinegotziak, Jose Maria Acecrete Sanchezek Nafarroako Administrazio Auzitegian gora jotzeko helegitea aurkeztu du, udalaren jokabide bat salatzeke. Aceretek salatu duenez, kontraturik ez duen pertsona bati berdintasun gaietan udal aholkatzeagatik ordaintzen ari zaio. Sozialistak zehaztu due-



Olaztiko EH Bilduko udal taldea. Eskubitik 1. Rodriguez, 4. Azkargorta.

nez, alkatearen ebazpenen bidez egiten dira ordainketak, “nahiz eta idazkari kontu-hartzailearen erreparotxostenak egon arren”. Orain arte aholkulari horri bide horren bidez 19.000 euro baino gehiago ordaindu zaizkiola adierazi du Aceretek.

Zinegotzi sozialistak helegitean dioenez, “lan-edo funtzio-harremana behar lukeena erlazio profesionala ezkutatatu dezake nahita edo nahi gabe”. Lan hori emateko uda-

lak inolako deialdi edo lehiaketa publikorik ez duela egin gaztigatu du Aceretek. Horregatik, epaitegian egindako ordainketa agindu guztiak baliorik gabe uzteko eskatu du. Sozialistak esan duenez, hainbatetan saiatu da gaia elkarrizketaren bidez konpontzen. EH Bilduko alkateari gardentasun faltarekin aritzea eta diru publikoa zertara bideratzen den ez azaltzea leporatu dio. “Berdintasun gaietan ezin da arinkeriari aritu”.

» Bakaiku

Dima eta Bakaiku, galdeketak senidetuta

Bizkaiko herriak eta Burundakoak azaroaren 27an egingen dute herri galdeketa

Dima eta Bakaiku artean 86 km daude. Bi herriak, hala ere, “erronka eta amets” batek lotzen ditu: azaroaren 27an herri bakoitzean egingen den herri galdeketa. Biek ere garagarrilean egiteko asmoa zuten, baina Espainiako hauteskondeen errepikapena, eta Euskadikoak dimoztarren kasuan, data atzeratzerara eraman zituzten. Bi herrietako Gure Esku Dago taldeek data bera aukeratu zuten, galdeketa “garbia eta topagune izanen dena” nahi dutelako.

Galdeketa data partekatzeaz aparte, dimoztarrek eta bakaikuarrek ere harremana badute. Horren adierazle Bizkaitik jasotako gonbidapena. Hala, 26 bakaikuar Dimako festetara joan ziren ostiral arratsaldean, alkatea tar-



Dimoztarrak eta bakaikuarrek elkarrekin, herri galdeketa aldeko deia egingez.

tean zela. Egoitz Urriza Lazkozi Dimako alkate Nekane Intxaurrek egin zion harrera eta festetako ttattarra jarri zion. Bakaikuarrek festari ekarpena egin zion eta ogia bukatu arte 50 kilo txistor eskaini zuten, auzatean (400dik

gora pintxo). Talde argazkia egin zuten bi herrietako galdeketa babesten duten herritarrek. Hartu-eman estutzeko herri kirolak, pilota, play back-a eta beste izan ziren.

Gauerdia pasata, plazan guztiek

“aurrean duten erronka eta ametsaren alde” topa egin zuten. Bakaikuarrek dimoztarrei Sakanara etortzeko gonbidapena egin zieten, festa giroan harremana mantentzeko, eta noiz izanen den zehazteko dago.

SAKANA

Zulo digitala ekiditeko neurria

Nasertic enpresa publikoa Nafarroako Generazio Berriko Banda Zabaleren Plana egiten ari da. Haren helburua hiritarrak, Nafarroako Gobernuaren zentroak eta industrialdeak gutxienez segundoko 30 Mko sareaz elkar-lotzea da. Izan ere, Europar Batasunaren 2020 Agendaren arabera, 2020. urtean Europako populazio guztiak Internetarako segundoko 30Mko sarbidea eduki beharko luke eskura, eta %50ak segundoko 100Mkoa.

Hori guztia kontuan hartuta, Cederna-Garalurrek, Nasertic-ekin batera, banda zabaleren inguruko plana udal eta enpresei azaltzeko saioak antolatu ditu Leitza eta Irunberrin. Saio horietan planaren xedeen, eragileen zerrendaren eta inbertsio eredu berri eman dira. Horretaz aparte, bi jardunaldietan sare berriak zabaltzeko proposamenak, inbertsio ereduak, finantza bideak eta tokiko erakundeekin elkarlanean aritzeko esparru posibleak aztertu eta azaldu dira. Ekarpenak egiteko garaia zabalik dago. Plan berriaren zirriborroa agorrilaren akaberarako egingo da.

Helburua lortzeko beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren, tokiko erakundearen, Cederna Garalurren eta telekomunikazio operadoreen arteko elkarlana. Nafarroako Mendialdean zulo digitala ekiditea da asmoa, populazioaren %92a 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi baita.



Banda zabalez Irunberrin aritu ziren.

SAKANA

Hamar udal Udalbiltzako kide

Udalbiltzak otsailean aukeratu zuen nazio zuzendaritza berria. Hartan dago Aritz Ikobaltzeta Mardaras zinegotzi etxarriarra. Erakundeak garagarzaroaren 17an Kontseilu Nagusia egin zuen eta dozena bat herri berriren sarrera eskaera onartu zuen. Horien artean zeuden Lakuntza eta Uharte Arakil. Bi herri horiek aurretik Udalbiltzako kide ziren ibarreko beste zortzi herriei batu zaizkie: Arbizu, Ergoiena, Etxa-

rri-Aranatz, Bakaiku, Iturmendia, Urdiain, Olatzagutia eta Zierdia. Kide izan nahi duten udal edo zinegotziek www.udalbiltza.eus bidez egin dezakete eskaera.

Bilkura berean 2015eko Udalbiltza Partzuergoko eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen kitapena onartu zen. Elkartutako erakunde osoko garapena eta beren arteko elkarlan instituzionala bultzatzea, ezarritako mugak gaindituz elkarrekin bate-



Udalbiltzakoek Gasteizko Udalarekin egin beharreko hitzarmena landu zuten.

ra lan egingez, beren lurralde eremuko gizarte eta kultur antola-

mentua lortzea xede dituzte Udalbiltza Partzuergoak.

» Altsasu

Espainiako banderaren lapurreta

Altsasuko Foruzaingoaren parean dauden mastetatik Espainiako bandera kendu eta berarekin eraman zuen kaputxa jantzia zuen pertsona batek. Joan zen ostegunean izan zen, 2:00ak aldera. Polizia etxean ez zen foruzainik, patruilatzen ari baitziren. Iruñeko zentraletik jakinarazpena jaso eta polizia etxera iritsi zirenerako han ez zen inor. Gertaerak ikertzen ari diren bitartean beste bandera bat jarri dute mastan, Europakoarekin eta Nafarroakoarekin batera.

» Altsasu

Erkudenera bisitan

Ulaiarren dagoen ermitan elkartuko dira hainbat altsasuar domekan. Ama Birjinaren irudia garilaren 2az geroztik elizan izan da, 20:00etako mezan bederaziurrena egiteko. Hura despeditu eta ermitara bueltan eramanen dute etzi. Erkudengo ermitarako erromesaldia elizatik 9:30ean abiatuko da. Erromesak Larrezabal eta Murgilarteko bidetik barna joanen dira. Irudialauren artean bizkar gainean eramanen dute ibilbideko ia 4 km-etan. Ermitaren aterpean, Erkudengo amaren irudia buru dela, meza izanen da 11:00etan. Ohi bezala, elizkizuna *Ama Birjina Erkudengoa* kanta abestuz despedituko da. Elizkizunaren ondoren udalak ardoa banatuko du, eta gazta mutur bat dastatzeko aukera izanen da. Baina nork bere puska gosalduko du. Indarrak berrituta, txistulariek plazarako deia egingen dute: zortzikoa, jotak eta porrusaldak ez dira falta. Herrira bueltan lagun taldeak bazkaltzera elkartuko dira.

» Iturmendi

Hemen dira festak

Karmengo Amaren omenezko festak heldu den ostegunean hasi eta hilaren 18ra arte, astelehenera arte luzatuko dira.

Egitaraua» **Garilak 14, osteguna.**

Bezpera
19:00etan Etxajua, festen hasiera.
19:00etan Herriko dantzari eta txistulari saioa.
22:00etan Herri afaria, Ximona gaztetxeak eginda.
Arratsalde eta gauean Karaoke Txema dj-rekin.

» Olatzagutia



Sutea eta gero etxola berrituta.

Larrialdi gunea konponduta

Olatzagutiko 839 etxebizitzetara zerbitzua ematen zuten larrialdi gunea Erburua kiroldegiaren ondoan dago. Joan den urteko garagarriaren 15eko goizaldean suak egurrezko egitura eta barruan zeuden edukiontzia kixkali zituen. Sakanako Mankomunitateak berriki teiladura berria jarri dio, etxola itxura emanez. Lanek 3.600 euroko aurrekontua izan zuten. Baina horri aurretik gordea zuten egurrezko egitura ere gehitu beharko litzaioke.

» SAKANA

Nazioarteko auzolandegia Ennecon

Agorrilean Bernoako galtzadan beste bat izanen da. Boluntarioak lanera batu daitezke

De Amicita gobernuz kanpoko erakundearen bitartez atzerriko 11 gazte Etxarri Aranatzera etorri dira, Ennecon, haritzaren memoria parkeko auzolandegian aritzera. Bederatzi herrialdeetatik etorri dira Etxarri: Hego Korea, Turkia, Japonia, Errusia, Espainia, Frantzia, Grezia, Mexiko eta Alemania. Astelehenetik hilaren 18ra bitartean boluntario moduan lanean ariko dira guztiak. Goizetan parkeak itxura hartzeko lana egingen dute. Bideak eta beste egokitu, irailen eraikuntza lanak behar bezala has daitezke. Arratsalde-

tan, berriz, Sakanak eskaintzen dituen hainbat turismo ekintzekin gozatzeko aukera izanen dute.

Bernoako galtzada

Joan den urteko garilean ere GKE beraren bidez beste 15 gazte atzerriar lanean aritu ziren Sakanan. Bernoako galtzada azalaraztea izan zen haien egitekoa. Aurtan ere beste 10 edo 15 gazte atzerriar etorriko dira Bernoako galtzadan lan egitera. Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Iturmendin eta Urdaian ariko dira agorrilaren 12tik 26ra. Egun horietan "Sakanako ondare zati bat berreskuratzeko aparte, sakandarrok gure historiaren ezagutzaile eta berres-



Atzerritik auzolandegira etorritakoak atseden hartzen. NEREA MAZKIARAN

kuratzaile bihurtzea litzateke asmoa" azaldu digu Sakanako Garapen Agentziako Iker Manteolak. Horregatik, boluntarioei

ongi etorria egingen diete.

Joan den urtean bezala, udaletatik herritarrei parte hartzeko gonbita luzatuko zaie.

»

Zerbitzua pazientearen hizkuntzan

"Zerbitzuaren kalitatea estuki lotuta dago zerbitzua pazientearen hizkuntzan ematearekin. Hori da kalitatezko zerbitzu baterako lehen gakoa. Azken batean, ezinbestekoa da, pazientearekiko gertutasuna lortzeko, eta lasaitasuna eta konfiantza hedatzeko kontsultan". Bangor Unibertsitateko irakasle Gwerfyl Roberts galestarrak Etxarri Aranatzan astelehenean esana. Osasungintzan hizkuntza gutxiagotuen lanketan erreferente esanguratsua da.



Roberts, ezkerretik 5.a, osasungintza euskalduntzeko lan taldeko kideekin.

Ehuk gonbidatuta udako ikastaro bat ematera etorri da eta

hori baliatuz osasungintza euskalduntzeko lan taldeko kideak (Kon-

tseilua, Behatokia, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea eta UEMA) harekin elkartu ziren. Euskal Herriko osasun sistematan euskarak zuen egoera eta eragile bakoitzak bere esparruan egiten duen lana azaldu zioten eta Robertsek Galesko egoeraren berri eman zien. Baita han lantzen ari diren ekimenen berri eman ere. Haien artean osasun zerbitzua eskaintzen duen profesionala pazientearen hizkuntzan aritzearen garrantzia nabarmentzen eta bilatzen duen ekimena nabarmendu zuten.

» Altsasu

Astegun goiz ezberdinak

Haurrei eta gaztetxoiei zuzendutako Altsasuko Udalaren Aisiaz blai programa aldaketarekin etorri da aurtan. Parte-hartzaileen asistentzia bermatzeko udalak bi asterako matrikulatzeko aukera eskaini du garilan eta agorrilean. Astelehenean hasi eta hilaren 15era arte 253 haur ariko dira programan. Hilaren bigarren hamabostaldian, berriz, 244. Guztiak adinkideekin taldeetan banatzen dituzte, bederatzi talde dira guztira. Haien ardurara 25 begiralerena da. Agorrilaren aurreneko bi astetan 37 izanen dira eta 30 azken bi astetan. 4 eta 12 urte bitarteko haurrak dira eta talde bakarrean elkartzen dira denak.

Haiekin hiru begirale ariko dira.

Aisiaz blai programa astegunetako goizetan izaten da, 10:00etatik 13:00etara. Txikienak, 4 urtekoak, Txantxari ludotekan elkartzen dira. Gainontzekoek, berriz, Zelandi eskola dute topagune garilan. Agorrilean elkargunea ludoteka bihurtzen da berriro ere. Talde bakoitzak dinamika propioa baldin badu ere, aurtan Altsasuko euskalkiko hiztegia lantzen hasiko dira, ezagutzatik erabilerara pausoa emateko helburuz. Irteerak ere badituzte: Leitzako Peru Harri parkera, Donostiako hondartzara... Sanferminetako txupinazoa, kulturarteko festa, pintxo lehiaketa,



Herenegun sanferminak ospatu zituzten, txupinazo eta guzti.

ta, yoseikan budo, igerilekua... Kultur gune parean azken festa egingen dute, talde bakoitzak ikusizun bana eskainiz.

Bestalde, familia bizitza eta lana uztartzen laguntzeko Txantxari ludotekan 3 eta 10 urte arteko 40 haur elkartu ziren garagarriaren 22tik ostirala arte, 8:30etik 13:30era. Lau begirale arduratu ziren haietaz.

Azkenik, Gu geu gazte izena du behar bereziak dituzten gazteendako udalak garileko arratsalde-atarako antolatutako aisialdi programak. Irteerak, ikastaroak, festak, grafitiak eta beste hainbat ekitaldi izanen dituzte.

» SAKANA

UEUko ikasleendako diru-laguntza deialdia

Aurtan Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ikastaroak egin dituzten sakandarrek diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Sakanako Man-

komunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, UEUko ikastarotako matrikula gastuak lagunduko ditu diruz. Horretarako, 500 euroko diru-poltsa bideratu du (kopurua handitu daiteke). Deialdian zehaztuenez, onuradunek izanen dute 200 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso.

Eskaera egin nahi dutenek abenduaren 2ra arteko epea dute horretarako. Eskabidea bete eta horrekin

batera, nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, UEUren asistentzia agiria (%80koa gutxienez), matrikularen ordainagiria eta ikasle langabetuen kasuan kilometrajearen agiria edo garraio-txartelak aurkeztu beharko dira. Bestetik, ikastaro beragatik beste administrazioen batean diru-laguntza eskatu ote den aitortzea adierazi beharko da. Guztia Mank-ek Lakuntzan duen egoitzan aurkeztu beharko da.

BILTOKI
 TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
 Bokatak
 Plater konbinatuak
 Karta**

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
 9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



Tere Urdanoz Goñi

(Gure lankide Jaioneren ama)

Dastatu eguzkiaren argia
zauden lekutik.



Sakanako AEK

Pello Txueka Lazkoz

“Txueka”
Arbizu 16-07-06



KINTUEK beti goguen izengo diau

Oroigarriak



gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275




Maria Teresa Urdanoz Goñi

Sutondoko zui txokua hutsik onen da etorkioen neguten.
Emazte, ama, amiña...
Ettu galduko zui jakintza eta kontatutako millaka histoyek.
Betiko gui artien.
Bihotzez eskerrak eman nahi ditugu momentu gogor hauetan jaso dugun berotasunagatik.

Arbizu 2016ko uztailaren 2an



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 KONTAKU/TARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK
ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130m karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

Eskaintza paregabea! Etxarri Aranatzen pisu bat salgai 66.000 € eta gainera prezioa negoziagarria da! 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitsua. Nire telefonoa 654 23 41 02 da.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK
GALDUTAKOAK

Haur baten erloju beltza galdu da Altsasun. Pultsometroa dauka. Tel 647 37 02 41.

Sakelako telefonoa galdu nuen Urdiainen, ekainaren 11n, larunbat gauean. Norbaitek topatu badu, dei dezala 948 461 647 ra, eskertuko da.

Opel Corsa baten giltza galdu da San Miguel inguruan. Topatu duenak dei dezala 627 139 661 edo 948 460 540 telefonoetara.

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurretakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraz-

tunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua esukalduntzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak “Lau zango milaka irri” programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonwes ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

3MBk kontu korronte zabaltu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi

esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garga- gardoak, lekaleak, ozpinak Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

EZKONTZAK

- Ibai Etxart Atxa eta Beatriz Vegas Zelaia, ekainaren 25ean Altsasun.
- Juan Francisco Burgos Ortega eta Amaia Altuna Casla, uztailaren 5ean Irurtzunen.

HERIOTZAK

- Beatriz Razkin Galarza, ekainaren 26an Dorraon.
- Maria Teresa Urdanoz Goñi, uztailaren 2an Arbizun.
- Pedro Maria Txueka Lazkoz, uztailaren 5ean Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

NAGOREK IRUÑA ENTRENATUKO DU: Javier Ortigosarekin batera Txomin Nagorek entrenatuko du 3. mailan dabilen Iruña. Osasuna, Athletic, Numancia, Atlético de

Madrid, Mallorca, Celta de Vigo, Levante, Numancia, Mirandés eta Iruña taldeetan jokatu eta gero, entrenatzera pasa da Nagore.

Kirola >>

Herri kirolak

Sanferminek dakartena

EGUERDIRO IRUÑEKO FORU PLAZAN ANTOLATUTAKO HERRI KIROL JAIALDI ETA TXAPELKETETAN SAKANDARRAK IZANEN DITUGU LANEAN

Herri kirol zaleek gozatu ederra hartzen dutesanferminetan, eguerdiro herri kirol ekitaldiak eta txapelketak jokatzeko baitira Iruñeko Foru Plazan. Jakina, kirolari sakandarrek ez dute huts egingo. Non lehiatuko diren errepasatuko dugu segidan

Jon Irañeta Nafarroako Harri-jasotze Txapelketan

Larunbatean, 12:00etatik aurrera, Iruñean

Larunbatean Nafarroako Harri-jasotze Txapelketa jokatu da. Bertan hiru harri jasotzaile lehiatuko dira, Sakanako Harri Jasotze eskolan trebatzen den Jon Irañeta irurtzundarra tartean. Josetxo Urrutia leitzarria eta Albaro Zugarrondo iruindarra dira beste biak. Hiru harri desberdinekin -125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola- bi minutuko txandak egin beharko dituzte.

Sakandarrak aizkoran, trontzan eta proba konbinatuetan

Astelehenean, 12:00etatik aurrera, Iruñean

Astelehenean aizkoraren, trontzaren eta proba konbinatuaren txanda izango da. Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketarekin abiatuko da Foru Plazako herri kirol jaialdia. Guztira 13 aizkolari ariko dira lanean, tartean 4 sakandar. Bi kanaerdiko erdibitu beharko dituzte, eta onenek egingo dute aurrera.

Ondoko aizkolariak ariko dira lanean: Patxi Mindegia (Zubieta), Jon Telletxea (Beintza Labaien), Jesus Etxeberria (Beintza Labaien), Koldo Garcia (Uhartea), Moises Gogorza (Ezkurra), Iosu Agirre (Arbizu), Joan Flores (Arbizu), Iosu Jaka (Etxarri Aranatz), Eneko Pagola (Anoz), Jacinto Etxekonanea (Beintza Labaien), Iker Gorriti (Uhartea Arakil), Marc Duch (Irurita) eta Xuban Kañameres (Arostegi).

Ondoren Nafarroako Kadeteen Mailako Trontza Txapelketaren txanda helduko da. 7 bikote lehiatuko dira bertan, tartean 4 biko sakandar. Etxanda jarritako metroko enberrari 10 epai egin beharko dizkiete. Ondoko bikoak lehiatuko dira. Unai Aleman eta Xabier Mitxelena (Basaburuak-Baztan), Antton



Aurten Nazabal ez da ariko eta herri kirol zaleek faltan botako dute.

Irigoiien eta Iker Aleman (Basaburuak-Baztan), Pablo Dorregarai eta Imanol Etulain (Basaburuak-Baztan), Mattin Petriati eta Ander Lakuntza (Andra Mari), Irati Igoa eta Axular Jaka (Andra Mari), Jon Aranburu eta Unai Irigoien (Iñigo Aritza) eta Josu Elizalde eta Joanes Rekalde (Iñigo Aritza).

Ondoren herri kirol proba konbinatuaren erakustaldia egingo dute Andra Mari ikastolak, Araxesek, Basaburuak eta Artzanegik.

Sakandarrak Nafarroako Ingude Altxatzean eta Motozerra Txapelketan

Asteartean, 12:00etatik aurrera, Iruñean

Asteartean ingudeen txanda izango da. Nafarroako Gizonezkoen Ingude Altxatze Txapelketa jokatuko da lehenik. 7 ingude jasotzailek hartuko dute parte txapelketan, bi sakandar, Iñaki Ibero eta Jon Irañeta irurtzundarrak, arte-

an. Josetxo Urrutia (Leitza), Imanol Martin (Berriozar), Albaro Zugarrondo (Iruñea), Alejandro Fernandez (Iruñea), eta Angel Albarra (Guadalajara) ingude jasotzaileekin batera aritu beharko dute. 18 kiloko ingudeari ahalik eta altxaldi gehien eman beharko dizkiete, minutu eta erdiz.

Emakumezkoen Ingude Altxatze Txapelketaren ondoren, III. San Fermin Motozerra Txapelketaren txanda iritsiko da. Alayn Salvador, Peio Kañameres, Juan Asin eta Mikel Lasartek motozerrarekin duten gaitasuna erakutsi beharko dute, 20 minutuko bi txandatan ariko baitira eta txanda bakoitzean irudi bat egin beharko baitute.

Ibero eta Irañeta txingetan eta Lasarte motozerrarekin

Ostegunean, 12:00etatik aurrera

Sanferminetako herri kirol programazioa Nafarroako Gizonezkoen Txingeta Txapelketarekin despiduko da. Miguel Angel Sukuntza (Leitza), Albaro Zugarrondo (Iruñea), Alejandro Fernandez (Iruñea), Iñaki Ibero (Irurtzun) eta Jon Irañeta (Irurtzun) txingalariek, esku banatan 50 kiloko txingekin, ahalik eta plaza gehien egin beharko dituzte. Plaza bakoitzak 28 metro izanen ditu.

Bukatzeko, motozerra erakustaldia egingen du Sakanako Harri Jasotze Eskolako zuzendaria den Mikel Lasarte izurdiagarriak. Motozerrarekin egurrezko irudiak egingo ditu Lasartek.



**K/ Txiki 4, bajua
Altsasu
650 28 13 78**

Mayka Pilates Zentroa

Pilates Zorua eta makinak - Tower - Reformer - Chair

Urteetako ikasketa eta esperientzia handiaren ondoren Altsasun zentroa ireki du Maykak. Ibilde profesionalen formazioa jarraitua izaten ari da. Profesionaltasun honek klaseak inongo arriskurik gabe jasoko direla bermatzen du, norbanakoengan eta talde bereziengan.

Zer da pilates metodoa?
Bizkarrezurrari oreka emateko gorputz barruko giharren garapenean oinarritzen den metodoa da. Bizkarrezurraren patologia ezberdinetarako eta giharren hainbat ahuleziendako aholkatzen da.

Metodologia
Joseph V. Pilates alemaniarrek XX. mendearen hasieran sortu zuen buruko eta gorputzeko entrenamendu hau. Gimnasia, traumatologia eta yogaren espezialitatean oinarritu zen eta horretarako programa bat diseinatu zuen, giharren indarra, buruko kontrola, arnasketa eta erlaxazioa uztartzen dituena. Jardute hau, batez ere, haurdunaldian, erditzearen ondoren, patologietan, hirugarren adinean, nerabeetan... aholkatzen da.

Nori zuzenduta?
Bizitzaren erritmo osasungarri bat izan nahi dutenentzat edota estetika arrazoiengatik pilates egin nahi dutenentzat. Sasoi betean eta buruz ongi egon nahi dutenentzat eta batez ere gaitz arinak dituztenentzat, horrela bizitza kalitatea eta patologia horrek ekar ditzakeen ondorioak arindu, konpondu edo atzeratu nahi dutenentzat.

ZERBITZUAK:
Lurreko pilates klasikoa (osagarriekin)
Pilates klasikoa tresnekin.
3-5 laguneko taldea,
arreta pertsonalizatua egin ahal izateko.
Banakako klaseak



Areto futbola

Espainiako txapeldunordea

Espainiako Kluben Arteko ANFS Espainiako Kopako finalera iritsi zen Koxka taberna, baina 2 eta 1 galdu zuen Malagako Carranque FS taldearen kontra

Asteburu honetan Espainiako Areto Futbol Kluben Arteko ANFS Espainiako Kopa jokatu da Torremolinosen. ANFS (Asociación Nacional de Fútbol Sala) elkarteak antolatutako txapelketan talde amateurak lehiatzen dira, Koxka taberna tartean. 2014an Espainiako txapelketa irabazi zuen talde altsasuarrak eta horregatik 2015ean Europako UEFS Cup txapelketan parte hartzeko txartela lortu zuen. Europako txapeldunordeak izan ziren altsasuarrak, Errusiako Podvodnik taldearen kontra 6 eta 3 galdu eta gero. 2015eko Espainiako ANFS txapelketan final laurdenetan erori ziren altsasuarrak.

Aurten ANFS Espainiako Kopan parte hartu du Koxka taberna. Txapelketa asteburuan jokatu da, Torremolinosen eta Alhaurín de la Torre. 16 talde lehiatu dira, 4 multzotan banatuta. Koxka taberna B

multzoan lehiatu da. Lehenengo partidari Malagako Carranque FS taldea izan zuen aurkari eta 3 eta 1 galdu zuten altsasuarrak. Hurrengo partidari 9 eta 1 irabazi zieten Africa del Sur taldekoei eta hirugarrenean 6 eta 1 hartu zituzten menpean Rotulos RG taldekoak. Final laurdenetan, Gasteizko Electricidad Jolma taldekoei 5 eta 3 irabazi zieten Koxka tabernakoek eta finalerdietan Valladolideko Portillo taldea kanporatu zuten, 4 eta 1 irabazita.

Finalean Malagako Carranque FS taldea izan zuen aurkari Koxka tabernak. Finala oso lehiatua izan zen eta bi taldeak pare pare aritu ziren. Koxka taberna aurreratu zen, Medinak sartutako gol bati esker, baina atsedena baino lehen bana berdindu zuen Carranquek. Bigarren zatian kontrako falta ugari seinalezatu zieten sakanarrei. Ez zen golik egon, eta, hortaz, berdinketa hausteko luzapena jokatu behar izan zuten. Eta arbitroek seinaleztatutako penalty

Koxka taberna



Atezainak: Jose Retegi eta Ivan Gorri. **Jokalariek:** Jonathan Medina, Arkaitz Gasco, Xabier Aiestaran, Patxi Beraza, Jonathan Higuero, Andoni Carlosena, Javi Saldise, Jorge Mayor-domo eta Iñigo Amezketa. **Entrenatzaileak:** Miguel Barrero, David Garcia eta Jose Ramon Ramirez.

bikoitz bati esker lortu zuen Carranque FS taldeak gola sartzea, garai penarena. Koxka berdintzen saiatu zen, atezain-jokalariformula ere erabili zuen eta bi baloi zurtoinera bidali zituen, baina Carranquek eutsi egin zuen eta kopa irabazi zuten Malagakoek.

“Aipatzekoa da ere arbitroak alde izan zituztela, sekulako falta pila seinalatu zizkiguten. Baina Carranque oso talde ona da. Finalera helduta hura galtzea pena da,

baina irabaztea oso zaila zen” adierazi du Koxkako entrenatzaileetako bat den Jose Ramon Ramirezek. Asteburu gogorra izan da. “6 partida eta 1.00 kilometroko bidaia, gutzira. Asteleheneango izateko 6:00etan iritsi gara eta gehienok lanera joan izan behar dugu. Baina ez gara kexatzen, gustuko dugulako egiten dugu” gaineratu du Ramirezek.

Kopa irabazteagatik Carranquek lortu du UEFS Europa 2017 txapelketan Espainia ordezkatzeko.

Pilota

Ezkurdiari ihes egin zion txapelak

Sanferminetako lau t'erdiko finala jokatu zuten atzo Aspeko Joseba Ezkurdi arbizuarrak eta Asegarceko Mikel Urrutikoetxea bizkaitarrak. Katedrak Urrutikoetxea jotzen zuen faborito, baina Joseba Ezkurdi joko bikainarekin dagoenez eta Labriteko zaleen babes gutzia zuenez, sorpresa ematea eta txapela jantzea, horrekin amesten zuen aurrelari arbizuarrak. Eta tarte batean hala gertatuko zela zirudien. Bi pilotarien arteko lehia ikusgarria izan zen, baina Ezkurdi izan zen lehen txanpan agintea hartu eta 5 eta 15 aurreratu zena.



Ezkurdi eta Urrutikoetxea, sari ematean. Pena txapela Sakanara etorri ez izana.

Txapela lortuko zuela zirudien, baina Urrutikoetxeak ez du inoiz partida galdutzat ematen eta, modu

ikusgarrian, erremontatzea lortu zuen Zaratamokoak, arbizuarraren akatsak tarteko. Bihotzekoa ema-

teko moduan zegoen Bombonera, 21eko berdinketa iritsi zenean. Eta, tamalez, azken tanto horretan ihes egin zion txapelak Ezkurdiari, 22 eta 21 galdu baitzuen. Horren eskura izanda, pena Ezkurdiak txapela jantzi ez izana.

Ezkurdi, Zubieta eta Zabaleta lanera

Abian da Sanferminetako Binako Txapelketa. A multzoan Irribarría-Barría, Altuna III.a-Zabaleta eta Bengoetxea VI.a-Beroiz lehiatuko dira eta B multzoan Ezkurdi-Zubieta, Olaizola II.a-Albisu eta Urrutikoetxea-Untoria. Multzo bakoitzeko onenek jokatu dute finala.



Bakaikoa eta Gorriti txapeldunak

DONEZTEBEKO ERREKAK IRUÑEA HARTU DU MENPEAN NAFARROAKO HERRIEN ARTEKO TXAPELKETAN

Larunbatean Nafarroako Herrien Arteko Txapelketako finala jokatu zen Labriten. Doneztebe eta Iruñea lehiatu ziren, lau mailatan: kimuak, haurrak, jubenilak eta seniorrak. Doneztebe faboritoa izan zen nagusi, lau partidetatik hiru irabazi zituelako, haurren mailakoa ezik, beste guztiak.

Doneztebek txapela lortzearen atzean bi sakanarrekin zeresan handia izan zuten. Izan ere, ber-



Erreka, Herrien Arteko Txapelketako txapelduna. Bakaikoa eta Gorriti tartean.

tako Erreka klubean aritzen dira Joanes Bakaikoa etxarriarra eta Jon Gorriti uhartearra. Biek Doneztebeko seniorren mailako bikotea osatu zuten eta 5 tantotan utzi zituzten Iruñeko Mayans eta Irurita. Bakaikoa gainontzeko

pilotariak baino koska bat gora dagoela erakutsi zuen, akatsik egin ez zuen Gorritiren babes sendoa zuela. Biek Mayans eta Irurita arriskatzera eraman zituzten, eta Iruñekoak akats ugari egin zituzten. Bukaeran 22 eta 5 gailen-

du ziren Errekako sakandarrak.

Hiru asteko epean hirugarren txapela jantzi du Bakaikoa. Aurreko astean, Adur Lasarekin seniorretan bikotea osatuta, Berria txapelketa irabazi zuen Bakaikoa Errekarekin eta duela bi aste ETB-LEPM torneoa, Erasunekin batera. Asegarcerekin aurrekontratua dauka pilotari etxarriarrak, eta saltoa emateko gai dela erakusten ari da. Asteburuan Euskal Herriko Herrien Arteko Txapelketan ariko dira Errekakoak. Bizkaiko txapeldun Markina izango dute aurkari eta Arabako Zigoitiak Gipuzkoako Azpeitia. Txapelketa hori lortuz gero, Errekak denboraldiko txapelketarik prestigioetsuenak irabaziko lituzke: Berria, Nafarroako Herrien Artekoa eta Euskal Herriko Herrien Artekoa.

Areto futbola

Tatono Arregiri Juan Manuel Gozalo Saria

Areto Futboleko Ligak eman dio saria Xotako presidenteari

Areto Futboleko Ligak Juan Manuel Gozalo Saria eman dio Magna Gurpea Xotako presidente Tatono Arregiri, irurtzundarraren duintasuna saritzeko. Duela 37 urte lagun talde batek sortu zuen Xota taldea Irurtzunen eta Tatono Arregi hasieratik egon da bertan.

IMANOL ETA SALDISE

Areto Futboleko Ligak aurki banatu ditu 2015-2016 ligako sariak. Entrenatzaile onenen proposamenen artean Magna Gurpea Xotako Imanol Arregi dago, eta denboraldiko jokalaririk onenaren aurkezko proposamenetan Dani Saldise irurtzundarra. Aipatu nominazioak afizionatuen eta komunikabideen proposamenak aintzat hartuta egindira. Aurki lehen mailako entrenatzaileak bildu eta maila bakoitzeko onenak zein diren erabakiko dute.

AURREKONTU GEHIAGO

Magna Gurpearen kalitatea mantentzeko aurrekontu gehiago behar dutela adierazi du Tatono Arregik. “Babesle gehienek jarraituko dute, baina taldeak duen mailari eusteko ez danahikoa, gehiago behar dugu. 800.000 euroko aurrekontuaz ari gara, gutxi gorabehera” azaldu du presidenteak.

Pilota

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 11. jardunaldia jokoan

11. jardunaldiko partidak

Ostiralean, 20:00etan
3.maila: Razkin-Maiza / Lauzirika-Muñoz
2.maila: Jokin-Muñoz / Diez de Gereñu-Gonzalez
Nagusiak: Mediavilla-Medel / Txiapuso-Labaka
1.maila: Sanz-Arana / Sueskun-Nogeira
Larunbatean, 17:00etan
3.maila: Mikel-Imanol / Azanza-Olmedillo
2.maila: Etxeberria-Sarazibar / Berat-Borrega
1.maila: Olo-Etxeberria / Lopez de Zubiria-Garziandia

10. jardunaldiko emaitzak

Ostiralean
3.maila: Azparren-Agirre 7 / Mendoza-Mendoza 18
2.maila: Elorza-Urbizu 15 / Martínez-Flores 18
Nagusiak: Matxin-Elizegi 17 / Jamar-Larraia 22
1.maila: Ioseba-Unai 18 / Loban-Arbizu 9
Larunbatean
3.maila: Ruiz de Egiño-Galartza 18 / Peito-Ondatz 16
2.maila: Tuero-Goñi 13 / Vazquez-Igoa 18
1.maila: Ijurrea-Zubieta 18 / Urteaga-Lauzirika 7

Triatloia

Sakanako Triatloi Campusa martxan

Garilaren 15era bitartean triatloian trebatzen ari dira Sakanako 18 neska-mutiko

Astelehenean hasi eta garilaren 15era bitartean triatloian trebatzen ariko dira 18 neska-mutiko sakanadar, Urko Berdud eta Aitor Mozo monitoreen aginduetara. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du triatloi campusa, Sakanako Triatloi Taldearekin eta Ataborekin batera. Goizeko 11:00etatik 13:00etara aritzen dira, Altsasuko Zelandi kirol gunean, igeriketa, txirrindularitza eta korrika uztartzen dituen kirola, triatloia, lantzen.

Garilaren 16an Sakanako Triatloi Txapelketa

Triatloi campusean teoria eta praktika uztartzen dituzte eta nahi dutenek garilaren 16an goizeko 10:00etatik aurrera Urdiainen jokatu den XV. Sakanako Triatloi Txapelketa parte hartzeko aukera izango dute. Sakanako Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria den proba da eta juniorren, kadeteen, haurren, kimuen, benjaminen eta aurrebenjaminen mailatan jokatu da. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du, Sakanako Triatloi Taldearen, Aitziber elkartearen, Urdiaingo Udalaren eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin.

Triatloi campuseko partaideak



Leire Maiza, Oihane Lakuntza, Hego Lakuntza, Ekain Alegre, Iker Mintegi, Ibai Perez, Alain Razkin, Ainhoa Etxaiz, Pablo Senosiain, Nahia Imaz, Ekain Imaz, Jon Ayerbe, Amets Aristizabal, Aritz Oiarbide, Ane Iturrioz, Aratz Lizarraga, Ane Beltran Heredia eta Joseba Beltran Heredia.

Izena emateko

www.rockthesport.com helbide-

an, uztailaren 14ra arte. Probaren egunean ezingo da izena eman.

Triatloia

34 neska mutiko Osasunako futbol campusean

Osasuna Fundazioak bere udako futbol campusak Iruñetik atera ditu aurten eta horietako bat Sakanan gauzatu da. Izan ere, aurreko astean 4 eta 8 urte bitarteko 34 neska-mutiko Osasuna Fundazioak antolatutako hastapen futbol campusean trebatu ziren, Etxarri Aranatz. 30 mutil eta 4 neska izan ziren futboleko murgildu zirenak. Horrekin batera, igerilekuetara joateko eta hainbat ekimenetan parte hartzeko tartea ere izan zuten.

Garilaren 18tik aurrera hasiko da Mankomunitateko futbol campusa, Dantzalekun, Peio Goikoetxea eta Iokin Loboren eskutik.



Etxarri Aranatzek antolatu zuen Osasuna fundazioak futbol campusa eta bikain pasa zuten 34 neska-mutikoek. OSASUNA

Atletismoa

Mendieta eta Estarriaga ongi Entzierroaren lasterketan

Zazpigarrena eta seigarrena izan ziren

Igandean jokatu zen La Jaranapeñak antolatutako Entzierroaren lasterketa, Santo Domingotik zezen plazaraino (799 m). Federatuen mailan Ayurton Azkue (2:07) eta Helena Loyo (2:28) izan ziren txapeldunak. Ruben Mendieta 7.a sailkatu zen (2:13) eta Fermin Azkargorta 13.a (2:19). Eta maila herrikoian Daniel Martinez (2:18) eta Andrea Marturet (2:51) gailendu ziren. Asier Estarriaga seigarrena sailkatu zen (2:34). Bestalde, Pasai Antxon jokatu zuen San Fermin jaietako krosa Aitor Salvadorrek irabazi zuen (23:19). Juantxo Azurmen- di 38.a sailkatu zen (28:27).

ZUMAIA FLYSCH TRAILA

Igandean 8. Zumaia Flysch Trail mendi lasterketa jokatu zen Zumaian. 21 km-ko proba Mikel Dieguez ondarrutarrak irabazi zuen (1:38:28). Juan Pedro Ariz bakaikuarra 146.a sailkatu zen (2:20:33).

Mendia



PEDRO GONZALEZ

Larrañetakoak Midi D'Ossaun

Asteburuan Midi d'Ossau itzulia egin dute Etxarri Aranazko Larrañeta mendi taldekoek, eta bikain

pasatzeaz aparte, irudi ikusgarriak bidali dizkigute. Uztailaren 16an Pirinioetara itzultzeko asmoa dute,

Panticosako bainuetxetik aterata, Respumoso aterpea eta Artouste izango dituzte helburu.

Non erabili

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osotan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA

LAKUNTZA

40 €ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

ILAIA ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

T. IRIARTE

IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Bandalux 59,00€/m² (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100€tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-batekin hurrengoan erabiltzeko.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

Txirrindularitza

Gonzalez txapelduna eta Aramendia txapeldunordea

Iturmendin, kadete mailan Bakarne Gonzalez Nafarroako txapelduna izan zen eta Leire Maiza eta junior mailan Maialen Aramendia Nafarroako txapeldunordea izan zen

Igandean Emakumezkoen V. Iturmendi Trofeoa jokatu zen Iturmendin, Nafarroako eta Euskadiko Erlojupeko Txapelketa, kadeteen, juniorren, 23 urtez azpiko eta eliteen mailan.

Lehenik eta behin juniorrak, 23 urtez azpikoak eta eliteak lehiatu ziren. Minutu bateko tartearkin atera ziren Iturmenditik, Arbizuko Utzubar industrialde-raino eta buelta egiteko (14 km). Bioracer taldeko Ziortza Isasi 23 urtez azpikoa izan zen azkarrena (20:11), Reyno de Navarra taldeko Ainara Elbusto eliteari 25

segundo aterata (20:36). Sopela-Ugeraga taldeko Miriam Gardachal juniorra izan zen hirugarrena (21:07). CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia junior iturmendiarra 8.a sailkatu zen (22:23). Junior mailan Miriam Gardachal izan zen Nafarroako txapelduna eta Maialen Aramendia dugu Nafarroako txapeldunordea.

Gonzalez txapelduna

Kadeteak Iturmenditik Etxarri Aranatzerraino joan ziren, bertako biribilgunean buelta hartu eta Iturmendiraino itzultzeko (10 km). Bizikleta.com taldeko Luisa Ibarrola gailendu zen (20:11) V. Iturmendi Trofeoan. Gipuzkoa-Rural Kutxa



Goian, Joana Irastorza eta Leire Maiza. Behean, Bakarne Gonzalez.

taldean dabilen Bakarne Gonzalez altsasuarra 7.a sailkatu zen (16:22), bere taldekide Leire Maiza etxarriarra 14.a (17:38) eta CAF Transport Engineering taldeko Joana Irastorza etxarriarra 17.a (18:05). Bakarne Gonzalez kadete mailako Nafarroako txapelduna izan zen, Leire Maiza hirugarrena eta Joana Irastorza bosgarrena.



Txirrindularitza

Sakandarrak Espainiako Txapelketetara

Asteburu honetan Haurren eta Kadeteen Mailako Espainiako Txapelketak jokatu dira, Meridan (Badajoz). Bertan aritzeko Aralarko Intersport Irabiako eta Burundako Quesos Albeniz eta Qualery-Katealde-La tasca de Don Jose taldeetako hainbat txirrindulari hautatu ditu Nafarroako selekzioak.

Irabiatik Josu Etxeberriaiturmendiarra ariko da kadeteetan. Eta Burunda klubetik haurren mailan Iker Mintegi altsasuarra lehiatuko da eta kadeteen mailan Ailetz Lasa. Horretaz gain, Burundako Marcos Pison Errioxako selekzioarekin lehiatuko da eta Mateo Gonzalez Gaztela Leongoarekin. Bukatzeko, emakumezkoetan kadete mailan Gipuzkoa-Rural Kutxako Bakarne Gonzalez eta CAF Transport Engineering taldeko Joana Irastorza lehiatuko dira eta haurren mailan Maria Beraza.



Mintegi.



Sakandarrak Luchon-Baionan

Sakandar talde batek Luchon-Baiona bizikleta ibilbide ezagun

eta ez lehiakorra osatu zuen ekainaren 25ean. Joseba Juango, Mikel

Astiz, Mitxel Larunbe, Josetxo Ducar, Mikel Lizarraga, Oskar

Brun eta Iraitz Goñi izan ziren 310 km-ko proba gogorra osatu zutenak, portu ikusgarriak tartean. Tourragatik ezagunak zaizkigun Peyresourde (1), Aspin (1), Tourmalet (berezia), Col du Soulor (1), Aubisque (3) eta Col d'Osquich gainditu behar izan zituzten. Jose Migel eta Leixko izan zituzten laguntzaile.

Extreme Bardeak

Larunbatean 1.500 bikerrek baino gehiagoak parte hartu zuten 101 kilometroko Extreme Bardeak BTT lasterketa gogor eta ezagunean, tartean makina bat sakandarrek.



Lasa eta Etxeberria podiumean.

Txirrindularitza

Juniorrak Oteizan eta Araban

Larunbatean XX. Javier Lukin Trofeoa jokatu zen Oteizan (78 km). Tek Sabadell Pramac taldeko Pol Hervas izan zen azkarrena (2:05:22). Quesos Albeniz taldeko Alex Unzilla 44.a sailkatu zen eta bere taldekide Xabier Maiza 81.a. Eta igandean Euskadiko Erlojuaren Kontrako Txapelketa jokatu zen Araban. Q. Albenizeko Asier Etxeberria 12.a sailkatu zen eta Hodei Zia 21.a.

TXIKIAK URDIAINEN

Larunbatean, festetan murgilduta zegoen Urdiainen kategoria txikiko lasterketak hartu zituen. 160 txirrindulari inguru lehiatu ziren, ginkanan eta lasterketetan



160 txirrindulari lehiatu ziren.

Automobilismoa

100 klasiko baino gehiago Altsasun

Clasicos Alsasua taldeak antolatutako 3. Auto Klasikoen Topaketan bildu ziren

Clasicos Alsasua taldeak antolatuta, 3. Auto Klasikoen Topaketa burutu zen larunbatean Altsasun. Deialdiak erantzun bikaina izan zuen eta guztira 100 ibilgailu klasiko baino gehiago bildu ziren, 2 kamioi, traktore bat eta 20 moto eta bizikleta inguru.

30 urtetik gorako auto eta ibilgailuak hartzen dira klasikotzat. Altsasun bildutako asko 60 eta 80 hamarkaden artekoak ziren, Seat etxeako ugari: 600, 850, 1.430, 1:500... Renault etxeako R-8, R-5 eta Alpine autoak ikusi ahal izan ziren ere. Alpinean izan zen bildutako begiradak gehien erakarri zituen. Citroënen 2 zaldi auto mitikoa ere ikusteko aukera izan zen, etxe bereko beste hainbat auto bezala.



Mota guztietako auto klasikoak egon ziren ikusgai, motor zaleen gozamenerako.

Hasieran Zumalakarregi plazan bildu ziren auto klasikoak, eta Sakanan barna buelta bat eman ondoren, tartean Urbasa igoz, gidariek Altsasuko Foru plazan aparkatu zituzten euren auto zaindu eta mirestuak, eta Gure Etxe-

an bazkaltzera bildu ziren. Antolatzaileek zozketak egin zituzten eta kalte neurologikoak dituen Sarrigurengo Aitor haurraren aldeko diru bilketa ere egin zuten. Clasicos Alsasua taldeak 40 kide inguru ditu.

Lasa txapeldun Amarozen eta Etxeberria bigarrena

Larunbatean kadeteen mailako Amarozen XIX. Saria-Patxi Rodriguez Memoriala jokatu zen Amarozen, Tolosan (57 km). Euripean, Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasak garaipen ederra lortu zuen, Aralarko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberriarekin esprint estua izan eta gero (1:25:16). Bigarrena sailkatu zen Etxeberria. Marcos Pison (Q.Albeniz) 13.a sailkatu zen, Imanol Galarza (Irabia) 27.a, Unai Villalobos (Q.Albeniz) 29.a, Beñat Etxezarreta (Irabia) 34.a eta Iosu Jaka (Q.Albeniz) 53.a. Taldeka, Quesos Albeniz laugarrena izan zen eta Intersport Irabia seigarrena.

AGURAIN

Ekainaren 26an Agurainen jokatu-tako lasterketa Ailetz Lasak irabazi zuen. Horren berri eman genuen, baina ez genuen aipatu Intersport Irabiako txirrindulariak ere lehiatu zirela. Josu Etxeberria 8.a sailkatu zen, Urko Gorriti 54.a, Imanol Galarza 55.a eta Jon Gil 83.a.

Mendia **arte** bihurtuz

Harriak, enborrak, hostoak, adarrak... mendian aurkitzen diren materialak hartu eta eskulturak sortu. Mendiko elementuekin artea egin. Hori da Landarta. Cristina eta Marta Diegok agorrilaren 22tik 25ra Landart ikastaroa antolatu dute. Aralarren izanen da.

Naturaren eta artearen artean harremana sortzea. Cristina Diegok Landartaren xedea azaldu du: “naturarekin lan egitean datza. Helburu artistikoa du”. Gainera, harremana bikoitzarekin antolatu dute ikastaroa, hortaz, Landart obrek Aralarren jokatu den Europar Orientazio probarekin bat egingo du. “Betidanik

nahi izan dut Landarta egin, eta koinatua orientazio probaren antolakuntzan zegoenez, biak elkartzea oso interesgarria iruditu zitzaidan”. Horrela, probako parte-hartzaileek arte lanak izango dituzte bidelagun.

Arte lanak mendiko elementuekin egiten dira eta mendian gelditzen dira. Soka edo alanbrea erabili daiteke ere, lorezaintzako tresnekin batera: “baina oso gutxi erabiltzen da, gehienbat mendiko materialekin lan egiten da”. Naturan daudenez eguraldiaren arabera eta jendearen “errespetuaren” arabera irauten dute: “batzuk egun batzuk baino ez dira geratuko, beste batzuk urte bat iraun dezakete”. Landarta mendian egiten da, baina lore-saltzaileek eta lorezainek erabili dezakete obra txikiagoak eginez. “Huntz edo ahuntz-hostoen adarrak hartu eta bola bat egin dezakezu, esaterako”.



Ikastaroa

Lore-saltzaileentzako bideratuta dagoen ikastaroa da Diego ahizpak antolatu dutena. Hala ere, lorezainek, arte-ederretako jendeak, eskulturagileak, eta abarrek ere parte hartu dezakete. Gomendagarria bada ere, ez da beharrezkoa aurretik loreen inguruko ezagutza izatea.

Ikastaroak lau egun iraunen du. Cristina Diegok azaldu duenez has-tapen ikastaro bat da, Landartean

hasteko modu bat. Hortaz, lehenengo egunetan Landartaren teoria eta oinarriak ikasiko dituzte. Ondoren, lana egingo dute. Irakaslea Jordi Pascual izango da, Kataluniako Arte Floral eskolako irakaslea.

Sakanako inguruak Landarta egiteko primerako lekuak dira, Diegoren esanetan. “Urbasa eta San Pedro, adibidez, izugarriak dira”. Hortaz, etorkizunean landartisten topaketak egitea gustatuko litzaioke. Dagoeneko Katalu-

niatik etorriko dira Aralar apaintzera: “Gironan elkartu ginen eta animatu dira”.

Izen ematea

685 722 112 telefonora hotseginenez emandaiteke izena. 300 euroko matrikula du.

Erkuden Ruiz Barroso

bazterretik

Argiñe Berastegi



Kartelgintza

Inoiz entzun dut Arte eta Ohitura herrikoia garapen material, artistiko eta espiritualak direla, herri-tik herriarentzat sortu eta hedatuak. Uda garaia iristearrekin batera herrietako kaleetan festa, kontzertu edo ekitaldi desberdinetako kartelez josita agertzen zaizkigu kaleak, gure kulturaren parte diren jaiak modu artistiko batean irudikatzen ditugularik. Kartelgintza XIX mendean sortu zen litografiaren garapenarekin batera. Izan ere, teknika honek modu erakargarri eta ekonomikoan irudiak sortzeko aukera eskaini zuen, kartelaren bat bateko

hedapena ekarriz. Berehala Paris, Milan eta Berlingo karririk “kaleko arte-galeria” bilakatu ziren. Parisen, Toulouse-Lautrec eta Alphonse Mucha artisten kartelek kartelgintza Arte kategoriaraino hedatu zuten. Kartela, zerbait dekoratibo bezala ulertuz. Europako beste herrialdeetan ordea, ekitaldi kulturalak, opera, zirkua zein zenezketak iragartzeko erabili zen. Kartelaren estetika ere herrialdearen arabera izan zen, tokian tokiko moda eta korrante artistikoak jarraituz. Holandan ordena eta konposizio lineala izan ziren nagusi, Italian, aldiz, drama eta eskala perfektuak zuten protagonismoa eta Holandan Erdi Aroko kutsua eta zintzotasuna.

Gerra garaietan kartelak beste kutsu oso ezberdina hartu zuen. Izan ere, propaganda politikoa egiteko erabili zuten. Esanguratsua da, I. Gerrate Mundialean 2 urteetan Ameriketan 20 milioi kartel sortu zituztela, bai dirua bildu, soldaduak kontratatu edota produkzioa estimulatzeke.

Kartelaren papera eta itxura gizar-tearen aldaketa eta beharrei erantzuteko aldatzen joan da azken 100 urteetan. Gaur egun, kartelak bere garapena jarraitzen du teknologia berrien eta Interneten hedapenari lotuta.

Girona, loreen hiria

Maiatzaren hasieran Cristina Diego Gironan egon zen hiria loreekin apaintzen. Girona Temps de Flors jaialdian barruko zein kanpoko espazioak loreekin apaintzen dituzte. Diego Rosa Valls eskolak gonbidatuta joan zen eta bertan bi espazio loreekin apaindu zituen: erreka baten ur-bazterrak bola urdin handiak hortentsia eta loreekin bete zituzten; eta zubi batetik lorez betetako egitura bat.

Bi espazio horiek sortzeko hogeita bost pertsonako talde bat zegoen. “Esperientzia izugarria



izan zen. Beste leku batzuetako lore-saltzaileekin elkartu nintzen eta loreei buruz hitz egiteko auke-

ra izan genuen”. Diegok estreinako parte hartu zuen Gironako Temps de Flors jaialdian.



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 20%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 40%	euria: 60%	euria: 20%	euria: 15%
Min: 16 Max: 25	Min: 13 Max: 28	Min: 15 Max: 29	Min: 14 Max: 23	Min: 13 Max: 18	Min: 11 Max: 18	Min: 11 Max: 21

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	32	11.5	5.7
Etxarri A.	28.5	8.3	1
Altsasu	27	9	10.1
Aralar	22.7	6	6.2
Urbasa	28.5	14	11.2

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
12	20	27	2

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Elena Aldasoro Galan

Arkatx liburu-denda

Testua: Maialen Huarte Arano



BADATOR

Sakanako gida

2017

GORDE ZURE LEKUA

948 564 275

1. 30 urte bete dituzue. Nolako izan da bidea?
Gorabehera ugari izan dituzue, baina jakin duzue moldatzen. 30 urtean gizartea bera aldatu da eta erosteko modua ere bai, beraz, saltzaile gisa horretara moldatu behar izan duzue. Liburuak eskaintzeaz gainera, produktu askotarikoak dituzue denda. Nire esperientzia pertsonala ere aldatu da, hasieran langile izan nintzen eta duela bi urte ni naiz jabea.

2. Nola aldatu da erosteko modua?
Gizartearen erritmoa aldatu da, tartean krisi ekonomiko eta soziala izan da eta modak asko aldatu dira. Bezeroekin tratua gertukoagoa izateko denbora hartu behar izan duzue. Teknologia ere asko egin du aurrera: Internetek aukera zabala ematen du liburuak eskuratzeko eta ebook-ek ere izan dute indarra. Baina, horretara ere jakin izan duzue egokitzen.

3. Zer da saltzen den gehiena?
Unean-unean modan jartzen den liburua. Eskaera horri erantzuna ematen jakiteak lortu dugure dendaren iraupena. Egun, opariak egiterakoan asko jotzen da liburuetara eta haur zein gazte irakurzaiek beti funtzionatu dute.

4. Euskaraz ala gaztelaniaz irakurtzen da gehiago?
Helduen artean gehiago irakurtzen da gaztelaniaz, baina tokian tokiko irakurzaiek eta euskal literaturak ere badute tokirik. Haur eta gazteen artean gehiena euskaraz saltzen da. Jolasak eta jostailu hezitzaileak ere ongi saltzen dira.

5. Krisiari nola egin diozue aurre?
Ezin gara kexatu, nahiko finkatuak gaude eta jakin izan duzue egoera zailenari ere aurre egiten. Sakanan ezagunak gara, askorendako erreferentziak denda eta hori luxua da. Papertegi zerbitzuan marka ezagunak saltzearekin batera, merkeagoak direnak ere izaten dituzue, poltsiko guztietarako aukerak. Promozioak ere egiten dituzue: testu liburuak hemen erosten dituzue gainerako produktuarentzako %10eko deskontua eskuratu dezake. Zozketak ere egiten dituzue eskolako materialarekin. Iruditzen zait badakigula bezeroa zaintzen.

6. Zer aurki daitezke liburu-dendan?
Liburu eta testu liburuez aparte ikas-material zabala duzue: koadernoak, motxilak, karpetak, boligrafoak, estutxeak... Oparitarako aukera ere zabala da eta euskarazko jostailuak zein jolas-hezitzaileak ere asko dira. Teknologia berriekin lotuta, pendriveak, DVDak... ere badituzue.

7. Ekimen desberdinak ere antolatu dituzue...
Duela bi urte hasi nintzen halako eskaintza egiten. Dendaren nortasunarekin lotutakoa da. Bezeroek Arkatxekin lotura berezia izateko aukera. Produktua eskuratzeko gainera, esperientziak hartu emana eskaini nahi du, ez dadila izan salerosketa soil bat. Zentro handiek egiten ez dutena da nik eman nahi dudana. Kultur arloan murgildu eta ekimen desberdinen bidez bezeroekin harremana sendotu. Liburuaren aurkezpenak antolatu ditut Haritza tabernarekin

elkarlanean, eta irteerak ere egin dituzue, guztiak arrakastatsuak.

8. Irteeretan jende askok hartu du parte?
Arrakastatsuak izan dira oso. Bi autobus irten dira eta biak lepo bete. Egia da, txangoen eta aurkezpenen aurretik publizitate asko egin dudala. Hala, jendearen erantzuna ere oso positiboa izan da. Lastailean Pasaian izan gara eta maiztzean Orbaizetan. Ibon Martinen liburuetan agertzen diren parajeetan barrena ibili gara.

9. Etorkizunerako, zer ideia duzue?
Ideia asko ditut. Hurrekin tailek prestatzea gustatuko litzaidake eta horretarako hasi naiz harremanetan jartzen guraso elkarte eta ludotekako hezitzaileekin. Musikarekin lotutako ekimenak ere jarri nahi ditut martxan. Badira musikari izandakoak liburuak kaleratu dituztenak eta eurekin aurkezpenak edo hitzaldi txikiak prestatzea da ideia. Eskaintza antza eskaintzea da buruan dudana.

10. Haritza tabernan, zer liburuaren aurkezpen egin duzue?
Ibon Martinen bigarren liburua: *La fábrica de las sombras*. Euskal Herriko inauterietan buruz ere aurkezpena egin genuen.

11. Uda garaia. Zein gomendio egingen zenuke?
Aisialdirako, zerbait dibertigarria, arina. Duela bi aste atera dute Dolores Redondoren trilogia poltsikoko edizioan. Euskaraz, Jon Arretxeren azkenekoak du orain mugimendua: *Estolda Jolasak*.